

SANTURTZIKO UDALEKO KIROLETARAKO UDAL INSTITUTUAK EMATEN DITUEN ZERBITZUEN TASEN ZERGA ORDENANTZA 2021

A) ABONAMENDUEI EZARTZEKO TASAK:

A1.- ABONAMENDU KONBINATUA, ezarritako data eta ordutegietan sarrera librea ematen duena ondorengo instalazio eta zerbitzuetarako:

- Igerileku klimatizatuak ¹	- Udako igerilekua ²
- Atletismo-pista	- Aldageletarako sarrera
- Squash, lanegunetan, Al. - Ol., 08:00 - 16:00.	- Deskontuak jarduera, ikastaro eta erreserbetan

Ondorengo tauletan zehazten diren modalitateetako edozein hautatu ahal izango da, hau da urtekoa (urtarrilaren 1etik abenduaren 31era), sei hilekoa (urtarriletik ekainera edo uztailetik abendura), hiru hilekoa (urtarriletik martxora, apiriletik ekainera, uztailetik irailera eta urritik abendura) eta azkenik hilekoa (hilabete naturalei dagokiena).

ABONAMENDU KONBINATUAK SANTURTZIKO udalerrian ERROLDATU GABEKO PERTSONENTZAT	€URO
Familiarena, urtekoa	250,00
Indibiduala, urtekoa	205,00
Familiarena, sei hilekoa	150,00
Indibiduala, sei hilekoa	120,00
Familiarena, hiru hilekoa	110,00
Indibiduala, hiru hilekoa	65,00
Familiarena, hilekoa	60,00
Indibiduala, hilekoa	30,00

ABONAMENDU KONBINATUAK SANTURTZIKO udalerrian ERROLDATUTAKO PERTSONENTZAT	€URO
Familiarena, urtekoa	185,00
Indibiduala, urtekoa	150,00
Familiarena, sei hilekoa	110,00
Indibiduala, sei hilekoa	90,00
Familiarena, hiru hilekoa	75,00
Indibiduala, hiru hilekoa	50,00
Familiarena, hilekoa	40,00
Indibiduala, hilekoa	25,00

ABONAMENDU BEREZIAK SANTURTZIKO udalerrian ERROLDATUTAKO PERTSONENTZAT	€URO
Udako igerilekuaren denboraldirako berezia, familiarena	75,00
Udako igerilekuaren denboraldirako berezia, indibiduala	50,00

Familia-abonamenduak ondorengo ezaugarriak ditu: titularraren izenean egiten da eta onuradunak izango dira horren ezkontidea edo bikotekidea, bai eta horren seme-alabak ere, baldin eta 2000. urtean edo ondorengo urteetan jaio badira. Halaber, 1996an edo ondorengo urteetan jaiotako seme-alabak ere hartu ahal izango dira barne, dokumentuen bidez ikasten edo langabezian daudela egiaztatzen badute. Era berean, aukera emango zaie 1991n edo ondorengo urteetan jaiotako seme-alabei familia-txartela mantentzeko, dokumentuen bidez ikasten edo langabezian daudela egiaztatzen badute, dagokion abonamendu indibidualerako ezarritako tasaren % 50 erantsita familia-abonamenduaren prezioari.

Nolanahi ere familia-abonamenduaren barruan egongo dira desgaitasun fisiko edo mental larriak dituztela egiaztatzen duten seme-alabak, haien jaiotza-data edozein dela ere.

Ordenantza honen xedapen gehigarrian gizarte-laguntzen araudia arautzen da, hain zuzen ere baliabide ekonomiko eskasak dituzten pertsonen zuzendutako laguntzena (baremoaren arabera).

A2. ABONAMENDU ARRUNTA: Santurtzin erroldatutako pertsonentzat da bakarrik eta aukera ematen du ezarritako data eta ordutegietan Igerileku Klimatizatueta soilik sartzeko. ¹

Modalitate indibidualean egin ahal izango da bakarrik, eta urte osorako (urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra).

ABONAMENDU ARRUNTAK SANTURTZIKO udalerrian ERROLDATUTAKO PERTSONENTZAT	€URO
Indibiduala, urtekoa	132,00

A3.- ATLETISMOKO ABONAMENDUA: Santurtzin erroldatutako pertsonentzat da bakarrik eta aukera ematen du ezarritako data eta ordutegietan atletismo-pista eta aldagela orokorretan soilik sartzeko. Modalitate indibidualean egin ahal izango da bakarrik, eta **urte osorako** (urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra).

ATLETISMO-PISTA ETA ALDAGELA OROKORRETARAKO ABONAMENDUA	€URO
Urtekoa, indibiduala, 14 urtetik beherakoak eta Santurtzin erroldatutakoak	65,00
Urtekoa, indibiduala, 14 urtetik gorakoak eta Santurtzin erroldatutakoak	100,00

A4.- TOKIKO KLUBETAKO KIROLARIEN TXARTELA: helbide soziala Santurtzin duten kirol-klubetako batean federazio-lizentzia eta indarrean dagoen fitxa daukaten pertsonentzat da soilik, eta aukera ematen dio kirolariari ezarritako data eta ordutegietan soilik bere klubari lagatako instalazioan sartzeko, entrenamendu eta lehiaketetan parte hartu ahal izateko. Modalitate indibidualean egin ahal izango da bakarrik, eta **urte osorako** (urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra).

HERRIKO KLUBETAKO KIROLARI-KARNETA (KUIIn URTEKO ABONAMENDURIK EZ DUENA)	€URO
Urtekoa, indibiduala, 14 urtetik beherako kirolariak	65,00
Urtekoa, indibiduala, 14 urtetik gorako kirolariak	100,00

B) SARRERA UNITARIOETAKO TASAK, behin sartu eta behin erabiltzekoa:

ALDAGELA, IGERILEKU ETA ATLETISMO PISTAN BEHIN SARTZEKO	€URO
14 urtetik beherakoak	3,00
14 urtetik gorakoak	4,00

C) JARDUERA FISIKOETARAKO HILEKO TASA 65 URTETIK GORAKOENTZAT:

ZAHARTZE AKTIBORAKO PROGRAMA, abonamendua dutenentzat besterik ez	€URO
Hileko kuota 65 urtetik gorakoentzat, KUIIn urteko abonamendua dutenentzat	20,00

D) IKASTARO, JARDUERA ETA ANTZEKOEN HILEKO TASAK:

IKASTARO, JARDUERA ETA ANTZEKOEN HILEKO TASAK	€URO
KUI-N ABONATU GABEKO PERTSONENTZAT	€URO
Astean bi eguneko igeriketa-ikastaroa	50,00
Igeriketa-eskola	50,00
Gazteentzako (18-30 urte) eta 65 urtetik gorakoentzako ikastaro bereziak	35,00
Haurreskola eta Eskoletako Igeriketa-ikastaroa	15,00
Tenis, padel eta beste erraketa-kirol batzuetako ikastaroak	60,00
Aquafitness eta antzekoak	50,00

Haurtxoentzako igeriketa-ikastaroa	50,00
KUI-N ABONATUTAKO PERTSONENTZAT	€URO
Astean bi eguneko igeriketa-ikastaroa	31,00
Igeriketa-eskola	31,00
Gazteentzat (18-30 urte) eta 65 urtetik gorakoentzat bereziki antolatutako ikastaroak	25,00
Haurreskola eta Eskoletako Igeriketa-ikastaroa	15,00
Tenis, padel eta beste erraketa-kirol batzuetako ikastaroak	43,00
Aquafitness eta antzekoak	35,00
Haurtxoentzako igeriketa-ikastaroa	31,00

E) INSTALAZIOAK ALOKATU ETA ERRESERBATZEAGATIKO TASAK ²

KUI-N ABONATU GABEKO PERTSONENTZAT	€URO
Kiroldegi estalia, ordubete	55,00
Kiroldegi estalia, hilabetean, astean ordu finko bat izateagatik	190,00
Futbitoko kanpoko pista, ordubete	40,00
Futbitoko kanpoko pista, hilabetean, astean ordu finko bat izateagatik	115,00
SquaHS-pista, ordubete	8,00
SquaHS-pista, hilabetean, astean ordu finko bat izateagatik	22,00
Tenis-pista, ordu bat eta 30 minutu	15,00
Tenis-pista, hilabetean, astean ordu bat eta 30 minutu finko izateagatik	60,00
Padel-pista, ordu bat eta 30 minutu	15,00
Padel-pista, hilabetean, astean ordu bat eta 30 minutu finko izateagatik	60,00
Belar artifizialeko futbol11-zelaia, ordubete zelai osoa	100,00
Belar artifizialeko futbol7-zelaia, ordubete	65,00
Serantes pilotalekua, pilotalekuko joko eta kiroltarako, ordubete	10,00
Serantes pilotalekua, Ikuste ALAI elkarteko kideak, ordubete	2,00
Ping-pongeko mahaia, palak eta pilota, ordubetez	5,00
Materiala alokatzea: baloia, erraketa, ordubetez	5,00
Autoarentzako garaje-plaza baten hileko alokairua	66,00
Motozikleta edo ziklomotorrarentzako garaje-plaza baten hileko alokairua	36,00
KUI-N ABONATUTAKO PERTSONENTZAT	€UROS
Kiroldegi estalia, ordubete	45,00
Kiroldegi estalia, hilabetean, astean ordu finko bat izateagatik	155,00
Futbitoko kanpoko pista, ordubete	30,00
Futbitoko kanpoko pista, hilabetean, astean ordu finko bat izateagatik	100,00
Squash-pista, ordubete	4,00
Squash-pista, hilabetean, astean ordu finko bat izateagatik	14,00

1 Igerileku klimatizatu itxita egongo da abuztuan, eta uztailean larunbat, igande eta jaiegunetan; era berean, behar jakinak direla-eta, hala nola kirol-lehiaketak, arrazoi teknikoak eta/edo arauekin loturikoak (sanitarioak), beste egun batzuetan ere igerilekua ez da erabilgarri egongo, eta horren berri emango da iragarki-taulan behar bezala jakinarazita. Halaber, baliabideak hobeto aprobetxatzeko eta antolamendua hobetzeko xedez, igerileku klimatizatu berria erabiltzaile eta abonatuak erabiliko dute oro har, eta zaharra ikastaroetarako, eskola-jardueretarako, jarduera eta entrenamenduetarako eta lehiaketetarako izango da.

² Aurreko kirol-instalazioak, E) atalean jasotakoak, erabiltzeko erreserbatuz eta ordainduz, pertsona parte-hartzaile guztiek, urteko abonamendua izan ala ez, sartzeko eskubidea eskuratuko dute, eta beraz ez dute beste kopururik ordaindu behar. Era berean, argia ere barne egongo da, behar izanez gero, inolako kargurik gabe. Abonatutako pertsonak bakarrik egin ahal izango dituzte erreserbak telefonoz, baina instalazioa erabili aurretik ordaindu behar dute erreserba hori. Interesdunak bere erreserba hitzordua baino 24 ordu lehenago ezeztatuko balu, beste erreserba edo erabilera batekin trukatu ahal izango du. Ez da inola ere ordaindutako zenbatekoa itzuliko.

Tenis-pista, ordu bat eta 30 minutu	10,00
Tenis-pista, ordu bat eta 30 minutu, lanegunetan, astelehenetik ostiralera, 16:00ak arte.	7,50
Tenis-pista, hilabetean, astean ordu bat eta 30 minutu finko izateagatik	40,00
Padel-pista, ordu bat eta 30 minutu	10,00
Padel-pista, ordu bat eta 30 minutu, lanegunetan, astelehenetik ostiralera, 16:00ak arte.	7,50
Padel-pista, hilabetean, astean ordu bat eta 30 minutu finko izateagatik	40,00
Belar artifizialeko futbol-zelaia -11, ordubete zelai osoa	100,00
Belar artifizialeko futbol7-zelaia, ordubete	65,00
Serantes pilotalekua, ordubete abonatuentzat	2,00
Ping-pongeko mahaia, palak eta pilota, ordubetez	3,00
Materiala alokatzea: baloia, erraketa, ordubetez	5,00
Autoarentzako garaje-plaza baten hileko alokairua	62,00
Motozikleta edo ziklomotorrarentzako garaje-plaza baten hileko alokairua	25,50

F) BESTE TASA BEREZI BATZUK

BESTE TASA BEREZI BATZUK	€URO
Igerileku klimatizatuko 25 m-ko kale batengatik, ordubetez	66,00
Pabilioia kirol-erabilera baterako alokatzea, harmailak barne, ordubetez	150,00
Pabilioia kirolaz bestelako erabilera baterako alokatzea, harmailak barne, ordubetez	1.500,00
Gimnasioa alokatzea, ordubete	40,00
Serantes pilotalekua beste kirol-jarduera edo -ikuskitzen batzuetarako alokatzea	47,00
Serantes pilotalekua KIROLAZ BESTELAKO beste jarduerara edo ikuskitzen batzuetarako alokatzea	100,00
Giltza galtzeagatik edo puskatzeagatik	47,00
Erraketa, baloia, etab. galtzeagatik edo puskatzeagatik, unitate bakoitzeko	47,00
Abonatu edo kirol-erabiltzailearen txartela bikoizteagatik	2,00
Abonatu eskumuturrekoaren kopia egiteagatik	3,00
Aparkalekuaren erabiltzaile-txartelaren truke	8,00
Txartela gaizki erabili ondoren txartela itzultzeagatik	20,00
PRAMA gimnasioa ordu betez alokatzea, begiralea barne	100,00

G) KABIEZESKO BAINUETXEA ERABILTZEAGATIKO TASAK

KUI-N ABONATU GABEKOEN tasak	€URO
Sarrera unitarioa	12,00
Hileko abonamendu pertsonala eta mugagabeko erabilera	60,00
10 + 2 erabilerako abonamendua	80,00
Tokikoak ez diren kolektiboak, 30 erabilera (hiru hilabeteren ostean iraungitzen da)	170,00
KUI-N ABONATUTAKOEN tasak	€URO
Sarrera unitarioa	8,00
65 urtetik gorakoentzako sarrera unitarioa, ordutegi mugarik gabekoa	6,00
Hileko abonamendu pertsonala eta mugagabeko erabilera	45,00
10 + 2 erabilerako abonamendua	70,00
Tokiko kolektiboak, 30 erabilera (hiru hilabeteren ostean iraungitzen da)	130,00

H) XEDAPEN GEHIGARRIA

Lehenengoa: Kirol-zerbitzuak emateagatik ezarritako tasak zatikatuta kobratzea egoki ikusten diren salbuesenezko kasuetan, tasak zerbitzua eman den tarte errearen arabera zatikatu ahal izango dira. Era berean, interesdunei eman ez zaizkien zerbitzuen truke kobratutako tasen zati proportzionala itzuli ahal izango zaie, baldin eta zerbitzua ezin izan bada erabili, KUIri egotzi dakizkikeen arrazoiak edo ezinbesteko bestelako arrazoi batzuk tarteko.

Bigarrena: Gizarte-laguntzak: egoera sozioekonomiko jakin batzuetan daudela behar bezala frogatzen diren eta Ordenantza hauen I. Eranskinean adierazitako eskakizunak eta baremoak betetzen dituzten pertsonen tarifa gutxituko zaie % 50ean abonamendu KONBINATU indibidual eta familiakoan eta ARRUNT indibidualean.

ORDAINTZEKO ERA:

Aurreko urteetan abonatuak egon diren eta ordainketa helbideratuta izan duten pertsonen haiek baimendutako kontu-zenbakian kargatuko zaie tasaren zenbatekoa. **Urteko familia-abonamendua edo abonamendu indibiduala daukaten eta ordainketa helbideratuta duten pertsona abonatuak** ordainketa zatikatu ahal izango dute, eskaera formalizatzeko orduan hala eskatu eta jakinaraziz gero. Horrela, ordainketa bi zati berdinetan banatu ahal izango dute, lehenengoa urtarrilean eta bigarrena martxoan ordainduz, edo bestela lau zati berdinetan, urtarrilean, martxoan, uztailan eta urrian helbideratuko direnak.

Ordainagiriaren helbideratzea baimendu ez duten pertsona abonatuak dagokion zenbateko osoa sartu beharko dute 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera Santurtziko Kiroletarako Udal Institutuak **KUTXABANK**en bere izenean irekita duen kontu korrontean.

Hileko kuota, edozein motatakoak izanda ere, hil bakoitzeko 5a baino lehen ordaindu beharko dira, banku-helbideratzearen kasuan izan ezik, kasu horretan hil bakoitzeko 15aren inguruan kargatuko baitira dagozkion ordainagiriak.


Instalazioak erabiltzeko erreserben ordainketa erreserba egiten den unean bertan egingo da, instalazioak erabili aurretik. Abonamendu Konbinatuak dituzten pertsonen erreserba telefonoz egin ahal izango dute, eta erreserba hori nahitaez ordaindu beharko dute, edozein arrazoiengatik ezin erabili arren. Era berean, KUIren esku ez dauden arrazoiengatik, hala nola baldintza klimatologiko txarrak edo bestelakoak, prestazioa garatu ezin denean edo interesdunak horri uko egitea erabakitzen duenean, ez da erreserbaren prezioa itzuliko.

Pertsona abonatuaren izaera frogatzen duen dokumentu bakarra horretarako egindako txartel izenduna da, eta beraz txartel hori jaso arte abonatuak ez dituzte dagozkien eskubideak eta betebeharrak eskuratuko. Txartelak pertsonalak eta besterenezinak dira. Titularrak bestelako pertsona batek erabiliko balu, txartelari atxikitako eskubideak denbora baterako etengo dira.

Santurtzin, 2020ko irailaren 16an

KUI-KO ZUZENDARI KUDEATZAILEA
Bonifacio TERUELO FERRERAS

KUI-KO LEHENDAKARIA
Danel BRINGAS EGILIOR



Kiroletarako Udal Institutoa
Instituto Municipal de Deportes

Santurtzi

SANTURTZI
udala - ayuntamiento



I. ERANSKINA

KIROL-INSTALAZIOAK URTEKO ABONATU GISA ERABILTZEKO GIZARTE-LAGUNTZEN EMAKIDA ARAUTZEN DUEN ARAUDIA

1. LAGUNTZAREN OBJEKTUA

Araudi honek arautzen dituen gizarte-laguntzen helburua da ekonomikoki egoera kaskarrean dauden pertsonen kirola egiteko aukera bermatzea, kirolak hiritarren bizi-kalitatea hobetzen duela eta murgilduta gauden aisiaren gizarte honetan hiritarrak pertsona gisa modu integralean garatzea bultzatzen duela jotzen baitugu. Era berean, KUIren ustez, jarduera fisiko eta kirolekoak eskubide bat dira, osasuna sustatzen dute, aisia bultzatzen dute eta gizabanako guztien harremana eta gizarteratzea hobetzen dute; horregatik, botere publikoei dagokie horiek sustatzea.

2. HARTZAILEAK

Hartzaitzat hartuko dira Santurtziko udalerrian erroldatuta dauden eta dagokion abonamenduen tasagatik ezarritako kostua ordaintzeko nahiko baliabide ez dituzten pertsona guztiak.

Arauz ugari gisa kalifikatutako familiek araudi honetan jasotako gizarte-laguntzak eskuratuko dituzte zuzenean. Horretarako, eskabide-dokumentua bete beharko dute, eta tasaren diferentzia urteko edozein unetan ordaindu (ez dute ordaindu beharko arrazoi ekonomikoengatik beste kasuetarako ezartzen diren epeetan).

3. ESKAKIZUNAK

Ondorengo eskakizun guzti-guztiak betetzen dituzten pertsonen aipatutako laguntzak jaso ahal izango dituzte:

- a) Santurtziko udalerrian erroldatuta egotea.
- b) Erabilera-konpromiso gisa dagokion zenbatekoa alde aurretik ordaintzea.
- c) Gehienez ere baremoaren barruko diru-sarrerak edukitzea. Hori frogatzeko, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren (PFEZ) azken aitortpena aurkeztu beharko da, edo, familia ugarien kasuan, egoera hori frogatzen duen dokumentu eguneratua.
- d) Udalarekin ordaindu gabeko zorrik ez izatea.

Laguntza honen ondorioetarako, pertsona batek nahiko baliabide ez duela joko da pertsona horrek edo, kasua denean familia-unitateak, 5. puntuari familia-unitateko kideen arabera ezartzen den baremoko urteko baliabideak edo horiek baino baliabide txikiagoak dituenean.

4. BALIABIDEAK ZEHAZTEA

Baliabideak zehazteko, familia-unitatea osatzen duten pertsonen jasotako guztiak kontuan hartuko dira: errentak, ordainketak, pentsioak edo beste edozein titulu edo kontzeptutakoak.

Era berean, baliabidetzat hartuko dira jabetza, edukitza edo gozameneko titulu juridikopean edukita errendimendu ekonomikoak sor ditzaketen ondasun higigarriak edo higiezinak, bai eta horien bidez jasotzen diren errendimenduak ere.

5. BAREMOA

Diru-laguntzak ezarritako eskakizun guztiak betetzen dituzten eta ondorengo baremoa gainditzen ez duten baliabideak dauzkaten eskatzaileei emango zaizkie.

Familia-unitateko kideak	Urteko gehieneko zenbatekoa eurotan (**)
1	18.900,00
2	25.571,70
3	30.241,09
4	34.910,32

6. DIRU-LAGUNTZAREN ZENBATEKOA:

Diru-laguntza dagokion urte-abonamenduaren tasa-zenbatekoaren % 50ekoa izango da.

Ebazpen-akordioa NEGATIBOA denean, diru-laguntza ukatzearen jakinarazpena jasotzean eskatzaileak gelditzen den % **50a ordaindu beharko du ordainketa osatzeko**, edo bestela baja emango zaio, instalazioetan sartzea eragotziz.

7. AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

1. Behar bezala osatutako eskabidea.
2. Urte-abonamenduaren titularraren NANaren fotokopia
3. Familiako errolda-ziurtagiria.
4. Azken ekitaldiko pertsona fisikoen errentaren aitopenen fotokopia, edo bestela egin ez izanaren frogagiria eta ondare-ondasunen ziurtagiria.
5. Familia-unitateko kide guztien egungo diru-sarreraren frogagiria. Langabezian daudenean, Gizarte Segurantzaren lan-bizitzaren agiria eta prestaziorik jasotzen ari ez direla dioen Estatuko Enplegu Publikoko Zerbitzuaren (SEPE) ziurtagiria.
6. Gizarteratzeko gutxieneko diru-sarrera edo antzekorik jasotzen ari badira, ez dute 4 eta 5 puntuetan adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko, baina bai GGD jasotzen ari direla dioen frogagiria.
7. Familia ugarien kasuan: familia-liburu eguneratuaren fotokopia.
8. Autonomoen kasuan: autonomoen errenta-aitopena eta ondare-ondasunen ziurtagiria.

8. EPEA

Eskabideak entregatzeko epea ondorengoa izango da, inongo luzapenik gabe: 2020ko OTSAILEKO BIGARREN ASTEA, asteleheneetik ostiralera, 11:00etatik 14:00etara, Mikel Trueba kiroldegian.

9. EBAZTEKO PROZEDURA

Behin eskabideak entregatzeko epea amaituta, KUIk eskabide bakoitzeko dokumentazioa egiaztatuko du eta gehienez ere bi hilabeteko epean eskaera ebatzi eta eskatzaileei idatzizko jakinarazpen bat bidaliko die.

Emandako datuak zuzenak ez direla edo funtsezkotzat jo daitezkeen datuak ezkutatu direla egiaztatuko balitz, eskabidea atzera botako da.

KUI-REN KIROL INSTALAZIOAK 2020an ZEHAR ERABILTZEKO GIZARTE-LAGUNTZAK ESKATZEKO EREDUA

Izena eta abizenak:	
NAN:	
Helbidea eta telefonoa:	
Abonamendu mota eta zk.:	
Erregistroa:	

NIRE ERANTZUKIZUPEAN DEKLARATZEN DUT

1.) Familia-unitateak iaz ondorengo diru-sarrerak izan zituela:
2.) Ondorengo ondasunak ditudala:

ESKATUTAKOA:

DIRU-LAGUNTZA bat kirol-instalazioak 2021ean _____
abonamenduaren bidez erabiltzeko.

(Sinadura)

KIROLETARAKO UDAL INSTITUTUAREN LEHENDAKARI JAUNA. SANTURTZI